

**EBAZPENA, 2017KO URTARRILAREN 20KOA, HERRI ARDURALARITZAREN
EUSKAL ERAKUNDEKO ZUZENDARIARENA, HAINBAT LAN-POLTSA
HANDIAGOTZEKO HAUTAKETA-PROZESUETARAKO DEIA EGITEN DUENA.**

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak, honako lan poltsak handiagotu behar ditu:

Goi Mailako Teknikarien Kidegoa: Zuzenbidean Lizentziatua Aukera
Administrazioako Goi mailako Kidegoa.

Orientatzaileak.

Enpresako Medikua.

Administrariaren Kidegoa.

Goi Mailako Teknikarien Kidegoa: Artxibozain, Liburuzain eta Dokumentazioa

Eskala

Goi Mailako Teknikarien Kidegoa: Osasun Publikoa Eskala.

Eusko Jaurlaritzaren Kontseiluak 2006ko maiatzaren 30ean hartutako Akordioaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean sortzen diren bitarteko edo aldi baterako premiei aurre egiteko, kasuan kasuko lanpostuetako langile-zerrendak erabiliko dira, eta zerrenda horiek nahikoak ez badira, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak hautaketa-prozesuetarako deia egin beharko du.

Halaber, Akordioak ezartzen duenez, hautaketa-prozesu horiek komunikabideetan nahiz IVAPen web orrian iragarri behar dira, eta hautaketa prozesuok, gutxienez gaitasun-proba bat edo gehiago izango dute. Merituak ere baloratu ahal izango dira, beti ere aldez aurretik ezarritako baremo baten arabera.

Funtzio Publikoaren Zuzendaritzak kudeatzen dituen langile-zerrendetan goian aipatutako Lan-Poltza hoietako ezaugarriak dituen inor libre ez dagoenez, zuzendaritza horrek eskatuta, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak lanpostu horiek betetzeko hautaketa-prozesu espezifikoetarako deia egin behar du.

Goi Mailako Hezkuntzaren Europako Esparruak unibertsitate-tituluen sisteman eragin dituen aldaketak direla eta, Funtzio Publikoko sailburuordeak 2017ko urtarrilaren 20an emandako ebazpen bidez, deitutako lan-poltsetara sarbidea ematen duten titulazioen eguneratzea egin da, gaur egungo unibertsitate-sistemako Gradu-mailako titulazio berriak ere kontutan hartzeko. Ebazpen horren I Eranskinean aipatzen dira lan-poltza bakoitzera sartzeko baliozkoak diren titulazio bakarrak.

Horrela, bada, Funtzio Publikoaren Zuzendaritzaren txostena egina dagoela, honako hau

EBATZI DUT:

Artikulu bakarra. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean ondorengo Lan-Poltsak handitzeko hautaketa-prozesuetarako deia egitea. Deialdiaren berri emateko, iragarkiak jarriko dira komunikabideetan, deialdiak arautzen dituzten eta Ebazpen honen eranskinean azaltzen diren oinarrien arabera.

Goi Mailako Teknikarien Kidegoa: Zuzenbidean Lizentziatua Aukera
Administrazioako Goi mailako Kidegoa.
Orientatzaileak.

Enpresako Medikua.

Administrariaren Kidegoa.

Goi Mailako Teknikarien Kidegoa: Artxibozain, Liburuzain eta Dokumentazioa
Eskala

Goi Mailako Teknikarien Kidegoa: Osasun Publikoa Eskala.

Herri-Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariaren Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio Gobernantza Publiko eta Autogobernu sailburuari. Errekurtsua jartzeko epea hilabetekoa izango da Ebazpena argitaratzen den hurrengo egunetik kontatzen hasita, hala ezartzen baitu 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak 121. artikuluan. Errekurtsuari ez bazaio ebazpen adierazirik ematen, errekurtsua ezetsitzat joko da.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko urtarrilaren 20a



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Maite Iruretagoiena Ibaiguren

IVAPeko zuzendaria

HERRI - ARDURALARITZAREN
EUSKAL ERAKUNDEA

INSTITUTO VASCO DE
ADMINISTRACION PUBLICA



Erskunde autonomiaduna
Organismo Autónoma de

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

ADMINISTRAZIOKO GOI MAILAKO KIDEGOKO LAN POLTSA

LAN-POLTSA OSATUKO DUTENEK BURUTUKO DITUZTEN ZERBITZUEI BURUZKO DATUAK

KOKAPEN GEOGRAFIKOA:	Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta bere Erakunde Autonomoen edozein egoitzatan Autonomia Erkidegoko hiru Lurralde Historikoetan.
ADMINISTRAZIOAREKIKO LOTURA JURIDIKOA:	- Aldi baterako lan-kontratua. - Bitarteko funtzionarioen izendapena. - Txanda-kontratua.
GUTXIENKO ORDAINSARIA:	41.910,58 euro gordin urteko

LAN-POLTSA HANDITZEKO DEITUTAKO HAUTAKETA-PROZESUAN PARTE HARTZEKO BERARIAZKO BALDINTZAK

TITULAZIOA:	Lizentzia, Ingeniaritza, Arkitektura edo Gradua
--------------------	---

ADMINISTRAZIOKO GOI MAILAKO KIDEGOKO LAN POLTSA HANDITZEKO DEIALDIAREN OINARRI OROKORRAK

LEHENENGOA: DEIALDIAREN HELBURUA.-

Deialdi honen helburua Administrazioko Goi Mailako Kidegoko lan poltsa handitzea da, aldi baterako zerbitzuak betetzeko baldintza hauetan:

- Kokapen geografikoa:** Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta bere Erakunde Autonomoen edozein egoitzatan Autonomia Erkidegoko hiru Lurralde Historikoetan,
- Administrazioarekiko lotura:** Aldi baterako lan-kontratua, txanda-kontratua edo bitarteko funtzionarioen izendapena.
- Gutxieneko ordainsaria:** 41.910,58 euro gordin urteko.

BIGARRENA: HAUTAKETA-PROZESUAN PARTE HARTZEKO BALDINTZAK.

1.- Hautaketa-prozesuan parte hartzeko baldintza hauek bete beharko dira:

- a) 16 urte beterik eta 65 bete gabe izatea.
- b) Europar Batasuneko estatu bateko naziotasuna edukitzea, edo Europar Batasunak izenpetu eta Espainiako estatuak berretsitako nazioarteko itunen arabera langilean joan-etorri askea aplikatzen zaion estatu batekoa izatea.

Halaber, Europar Batasuneko estatuetako naziotasuna dutenen ezkontideek ere parte hartu ahal izango dute, baldin eta Zuzenbidearen arabera banatuta ez badaude, bai eta haien ondorengoek eta ezkontideen ondorengoek ere, baldin eta Zuzenbidearen arabera banatuta ez badaude eta ondorengoak hogeita bat (21) urtetik beherakoak badira edo, adin horretatik gorakoak izanda ere, gurasoen kontura bizi badira.

Gainera, aurreko paragrafoetan aipatu gabeko atzeritarrek ere har dezakete parte, Espainiako estatuan bizi badira. Hautatuak izanez gero, kontratua gauzatu aurretik, kontratuaren xede den jardura egiteko administrazio-baimena dutela egiaztatu beharko dute. Pertsona hauek lan kontratupekoak bakarrik izan ahalko dira.

- c) Titulazioa: Lizentzia, Ingeniaritza, Arkitektura edo Gradua
- d) Egin beharreko zerbitzuak burutzea eragotziko duen gaixotasun edo ezintasun fisikorik ez izatea, lanpostua desgaitasunen bat duten pertsonen beharrezanez egokitzeko ezar daitezkeen neurriak gorabehera.
- e) Diziplina-espediente batez edozein Herri Administrazio edo Autonomia Erkidegotako organo konstituzional edo estatutarioen zerbitzutik bereizita edo kaleratua ez egotea, ebazpen judizialaren arabera enplegu edo kargu publikorako desgaitasuna erabatekoa edo berezia ez izatea, ezta funtzionarioen kidegoan edo eskalan sartzeko, edo lan-legepekoen kasuan, bereiziak edo desgaituak izan diren lanpostuko antzerako eginkizunak betetzeko. Beste Estatu bateko nazionala izanez gero, desgaitua edo egoera baliokidean ez egotea, ezta diziplina-zehapenik edo baliokiderik ez izatea, dagokion Estatuan baldintza berberetan enplegu publikora iristea eragotziko duenik, hain zuzen.
- f) Ezintasuneko edo bateraezintasuneko legezko auzian sartuta ez egotea.

2.- Aurreko baldintza guztiak eskabideak aurkezteko epea amaitzen den unean bete beharko dira eta bere horretan mantendu hautaketa-prozesuak iraun bitartean.

3.- Deialdi honetatik kanpo geratuko dira aurreko deialdien ondorioz Administrazioko Goi Mailako Kidegoko lan poltsan sartuta daudenak.

Berriazko deialdi honen ondorioz poltsan sartuko direnak, hautaketa-prozesua amaitzen den unean dagokion lan-poltsan sartuko dira, lan-poltsa osatzen dutenen atzean, zero puntuazioarekin eta hautaketa-prozesuko emaitzen hurrenkeraren arabera, hain zuzen. Puntuazioa urtero barematuko da, berriz ere, lehen hiruhilekoan, EAEko administrazioan eta haren erakunde autonomoetan aldi baterako zerbitzuak emateko langileak hautatzeari buruz Jaurlaritzaren Kontseiluak 2006ko maiatzaren 30ean hartutako akordioak (ekainaren 13ko EHAO) 26. artikuluan ezarritakoa betetze aldera.

HIRUGARRENA: ESKABIDEAK.

Eskabideak aurkeztea

Hautaketa-prozesuetan parte hartu nahi duten pertsonak Internet bidez egin behar izango dute eskaera eta honako helbide elektronikoan eskuragarri duten eredia bete beharko dute: **www.ivap.euskadi.eus (Atala: Enplegu Publikoa, lan poltsak).**

Internet bidezko eskaera Eusko Jaurlaritzako KZGunea zentro publikoen bidez egin ahal izango da. KZGuneen zerrenda eta kokagunea eskuragarri daude honako helbide elektronikoan: www.kzgunea.eus

Eskaerak ondoren adierazitako bulegoetan ere egin ahal izango dira:

Gasteizen:

- Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundean; Donostia kalea 1 (Lakua); PK: 01010.

*Bilbon:

- Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundean; Errekalde zumarkalea 18; PK: 48009.

*Donostian:

- Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundean; San Bartolome kalea 28; PK: 20007.

*Oñatin:

- Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundean; Unibertsitate Zaharra; PK: 20560.

Eskabideak aurkez daitezke, halaber, 39/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak 16.4 artikuluan ezartzen dituen tokietan.

Eskabidea postetxe bidez aurkeztuz gero, irekita eman behar zaio postako funtzionarioari, ziurtatu aurretik data eta zigilua jar diezaion.

Tasa ordainketa

Tasak ordaintzeko bi modu daude:

1. OFF-LINE ordainketa: lehen aipatutako edozein banketxera joan eta sistemak emandako inprimakia aurkeztu.
 - Kutxabank (BBK, Vital, Kutxa).
 - Laboral kutxa.
 - Caixabank.
 - Banco Santander.
 - BBVA.
 - Sabadell Guipuzcoano.
 - Bankia.
 - Bankoa.
2. ON- LINE ordainketa banketxe horietako banka elektronikako bezeroa izanez gero, sistema hori erabil daiteke ordaintzeko. Beste erakundeen txartelen bidez ere egin daiteke ordainketa.

Tasaren zenbatekoa : **22,02 euro** (A titulazio-taldea)

Eskabideak entregatzeko eta tasak ordaintzeko epea **2017ko otsailaren 3an** amaituko da, 14:00etan.

Hautaketa-prozesuan onartutakoen eta baztertutakoen behin-behineko zerrenda eta ariketaren eguna, tokia eta ordua **2017ko otsailaren 15ean** argitaratuko da.

LAUGARRENA.- KALIFIKAZIO EPAIMAHAIA.

1.- Epaimahaia Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko Zuzendariak izendatuko du, trebakuntza, gaitasun eta prestakuntza egokia duten emakumeen eta gizonen ordezkariak orekatua izango du, hala agintzen baitu Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako 4/2005 Legearen 20.4b) artikulua. Honako kideak osatuko dute:

- Mahaiburua: dagokion Sailak edo Erakunde Autonomoak proposatuta izendatuko teknikari bat.
- Epaimahaiko kideak: Bi kide, dagokion Sailak edo Erakunde Autonomoak proposatuta izendatuko dira

Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko Hautaketa Zerbitzuko teknikari batek jardungo du idazkari.

- 2.- Nolanahi ere, epaimahaiak eskatu ahal izango du aholkulariak lan egiteko hautapen-prozesuaren probaren batean edo guztietan, eta horiek dagokien espezialitate teknikoak baizik ez dute egingo.
- 3.- Epaimahaiko kide guztiek hitza eta botoa izango dute, Idazkariak izan ezik, ez baitu botorik eman ahal izango. Epaimahaiaren erabakiak dauden botoen gehiengoak hartuko ditu. Berdinketa egongo balitz, mahaiburu diharduenaren botoak erabakiko du.
- 4.- Epaimahaiko kide bakoitzaren ordezkoez ere osatuko dute epaimahaia eta titularrekin batera izendatu beharko dira. Mahaiburuaren kasuan izan ezik, titularrek duten kualifikazio bera izango dute ordezkoez ere.
- 5.- Epaimahaia ezingo da eratu eta ezingo du jardun Mahaiburua edo Idazkaria (edo haien ordezkoez, kasuan kasu) eta epaimahaiakideen erdiak (titularrak edo ordezkoez, berdindio) bertaratu ez badira.
- 6.- Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legeak 23. artikuluan aurreikusitako inguruabarren bat ematen bada, Epaimahaiko kideek ezingo dute esku hartu, hala jakinarazi beharko diote Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariari, eta izangaiek ezetsi ahal izango dituzte.

BOSGARRENA.- HAUTAKETA-PROZESUA

- 1.- Berriazko oinarrietan dago zehaztuta hautaketa-prozesuaren taxutzea.
- 2.- Izangaiek proba ezberdinetan lortutako puntuazioak eta hautaketa-prozesuari buruzko iragarkiak Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen Gasteiz, Bilbo, Donostia eta Oñatiko egoitzetako iragarki-oholetan jarriko dira, baita Interneten ere (www.ivap.euskadi.eus) (**Atala: Enplegu Publikoa, lan poltsak**).
- 3.- Izangaiei ariketa bakoitzerako deialdi bakarra egingo zaie. Hautaketa-prozesuko probetan tratatu eta aukera berdintasuna bermatzearren, epaimahaiak proben deialdien ezaugarriak moldatu ahal izango ditu proba egingo den tokira bertaratzeko ezintasuna adierazten duten pertsonen kasuan, bai haurdunaldiagatik, bai erditzeko zorian egoteagatik bai susperraldi egoeran egoteagatik edo epaimahaiak askatasunez baloratuko dituen beste osasun

eragozpen larriengatik, beti ere, inguruabar hori epaimahaiari jakinarazten bazaio aldeztu aurretik eta sendagile-agiriaren bidez kreditatzen bada

- 4.- Epaimahaiak ariketak egiteko denbora eta baliabideak egokituak dizkiete egokitzapenak behar dituzten eta eskabidean hala adierazi dutenei, gainontzeko parte-hartzaileen aukera berberak izan ditzaten, betiere hori eginda probaren edukia desitxuratzeko ez bada eta eskatutako gaitasun-maila jaisten edo kaltetzen ez bada
- 5.- Hautapen-prozesuaren edozein unetan epaimahaiak izangairen batek deialdiko baldintza guztiak betetzen ez dituela jakinez gero, izangai hori baztertu da, entzunaldia egin ondoren, eta egun berean horren berri emango zaio Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko Zuzendariari.
- 6.- Izangaien hautapena, hautaketa-prozesuaren diseinuan ezartzen denaren arabera egingo da.
- 7.- Sailekaren-ordena hautaketa-prozesuko fase guztietan lortutako puntuazioen baturaren arabera egingo da.

SEIGARRENA.- EPAIMAHAIAREN PROPOSAMENA.

1. Hautaketa-prozesuko atal ezberdinen kalifikazioa amaitu ondoren, Epaimahaiak Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko Zuzendariari jakinaraziko dizkio hautaketa-prozesuko behin-betiko emaitzak. Zuzendariak dagokion ebazpena emango du puntuazio-ordenaren arabera lan-poltsa osatutzat emateko.
2. Ebazpenaren berri Funtzio Publikoaren Zuzendaritzari emango zaio, lan-poltsa osatu dela jakinarazteko. Proposamenean, baztertuak ariketak gainditu dituzten izangai guztiak agertuko dira, puntuazio-ordenaren arabera.

ZAIZPIGARRENA.- GERTAKARIAK.

1. Epaimahaiak ahalmena du oinarri hauetan ezarrita ez daudenei buruz azaltzen diren zalantzak ebatzi eta hautaketa-prozesua behar bezala burutzeko beharrezko erabakiak hartzeko.
2. Deialdia, bere oinarriak eta oinarriotatik zein Epaimahaiaren jardunetatik datozen administrazio-egintza guztiak aurkatuak izan daitezke, beti ere 39/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak jasotako kasu eta moduetan.

ZORTIGARRENA.- BALDINTZAK BETETZEN DIRELA EGIAZTATU

1. Lan-poltsa osatzen dutenek, hautaketa-prozesuan parte-hartzeko 2. Oinarrian eskatutako baldintzak betetzen dituztela egiaztatu beharko dute agiri orjinalen bidez, horrela eskatzen zaienean.
2. Adierazitako epearen barruan, eta ezinbesteko kasuetan izan ezik, lan-poltsa osatzen dutenek ez badute dokumentazioa aurkezten, hautaketa-prozesutik kanporatuko dira eta haien buruzko jardun guztiak baliogabetuta geratuko dira, beren eskabideetan aizunkeria egiteagatik izan dezaketen erantzukizunari kalterik egin gabe

BEDERATZIGARRENA.- DATU PERTSONALEN BABESA

1. Eusko Jaurlaritzako Herri Administrazio eta Justiziako sailburuaren 2014ko azaroaren 28ko Aginduak arautzen ditu Herri Administrazio eta Justizia Sailean eta sail horretara atxikitako Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundean (HAEE/IVAP) nahiz Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoan datu pertsonalak dituzten fitxategi automatizatuak. Agindu horren arabera, hautaketa-prozesuan bildutako datu pertsonalak Hautaketa-Prozesuak izeneko datu pertsonalen fitxategi automatizatuan sartuko dira. Fitxategi horren xedea da Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean aldi baterako zerbitzuak eskaintzeko langileria-eskariei erantzuteko hautaketa-prozesuak kudeatzea eta jarraipena egitea eta prozesuen berri ematea eskatzen dutenei. Fitxategiaren arduraduna IVAPeko Zuzendaritza da eta datuetara iristeko, datuak zuzentzeko, datuen aurka egiteko eta datuok ezerezteko, koordinazio eta kudeaketako idazkariarenganai jo beharko da: Donostia-San Sebastian, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz.
2. EAEko administrazioan eta haren erakunde autonomoetan aldi baterako zerbitzuak emateko langileak hautatzeari buruz Jaurlaritzaren Kontseiluak 2006ko maiatzaren 30ean hartutako akordioaren Hirugarren Xedapen Gehigarrian ezarri bezala, hautaketa-prozesuan zehar erantsitako datuak Funtzio Publikoaren Sailburuordetzako Funtzio Publikoaren Zuzendaritzari laga ahal izango zaizkio, baita hala eskatzen duten Euskal Autonomia Erkidegoko beste herri administrazio batzuei ere. Izangaiek euren datu pertsonalak lagatzea onartzen badute, berariaz eman beharko dute baimena.